

121/2013 Ebazpena, 2013ko martxoaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 2 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetza Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (232. EHAA, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetza lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.


2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 17.2 atalaren arabera, urtean jasotako eskaerak 4. atalean aurkeztutako merituei buruz ezarritako irizpideen arabera barematu ondoren, 2 lehentasuneko zerrendak ordenatzen dira, indarreko zerrenden segidan. Hori dela-eta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa ezarri dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, apirilaren 12ra arte, barne.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 20a.



Sin.: José María Armentia Macazaga
DIRECCIÓN DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO
ZUZENDARIA

